



IMANOL
GOENAGA

Txokoalde

Andatzan jende ugari

Kaixo berriz ere auzotar agurgarriak! Oraingo honetan ere, hemen gatozkizuegu inguru honetako berriak kontatzera. Udaberria etorri zaigula nabari da, azken egun hauetan eguraldi dotorea egin baitigu, baita hainbeste itxaro genuen egunean ere, Andatza egunaz ari naiz, noski: jende dezente igo zen igandean Andatzara, eta urtero bezala, giro polita izan zuten tontorralde hartan.

Beste gai bati helduz, aurten Usurbilgo Futbol Taldeak antolaturiko areto futboleko txapelketan auzoko gazteak “Akerra gaztetxea”ren izenean aurkeztu direla esan behar dut. Lehen partida galdu egin duten arren, oraindik ere esperantzak dituzte, eta ea ba pasa den urtean baino hobeto egiten duten.

Azkenik, eta Akerra Gaztetxeaz ari garela, aipatu nahi nizuke hil honen 24ean,

larunbatean, kontzertua eskainiko digutela Donostiako “Capitan Nemo” eta Astrozombies” eta Lasarteko “Talbot” taldeak, beraz, jakinaren gainean zaudete, ea ba jende ugari biltzen garen.



Sagardo Egunaren zain



EKIÑE
OLAIZOLA

Kaleberri

San Ixidro eguna joan da, baina Sagardo Eguna ere bertan dugu. Hilaren 15ean ederki gozatu genuen herri giroaz eta idi-demaz goldatzeko aukera ere izan genuen. Nik izugarri atsegin dut, nahiz eta batzuetan gogorregia iruditu idiekiko jarrera. Nik uste, zaletasun hau auzoak berak ekarri didala, herritarren goxotasunean sentitzeak, hainbeste jende bilduta ikusteak, apostuen oihuak entzuteak....

Lehengo urtean Martzelinoren omenalditxoa eskaini zuten baserritar egunean baserritar xume bati eskerrak emanez, nahiz eta bera bertan ez izan, zoragarria izan zen. Aurtengoa ere hortxe-hortxe ibili da.

Ea zer dakarkigun bada geure sagardo egun maiteak, mozkorrez gain noski! Ondo igaro asteburua eta gozatu Sagardo Egunaz!

